

## **GOBERNU BATZARRA**

**2006.11.06**

**Alkatea:**

**Jokin Bildarratz Sorron**

**Zinegotziak:**

**Olatz Peon Ormazabal  
Jokin Azkue Arrastoa  
Onintza Lasa Arteaga  
Jose M. Vieites Gomez**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta seiko azaroaren 6an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeke eta erabakiak hartzeko:**

**1.-Aurreko akta onartzea.**

**2.- Inmigrazioa.**

**3.-Udal Lankidetzak. Diru laguntzak emateko oinarriak.**

**4.-"Ibarratik Misio Taldea" Gobernu kanpoko erakundearen eskaera.**

**5.-Etxez etxeko laguntzak banatzeko araudi berriaren aplikazioa.**

**6.- Udate. Hiruhilabeteko txostena.**

**7.- Softec. Kontratuaren luzapena.**

**8.-Minuta honorarios dirección obra Errota.**

**9.-Amarotz auzoko sarbideak eta Iruña etorbideko urbanizazio proiektua, onarrizkoa, idazteko lan proposamena.**

**10.- Tolosan Montezkueko ur-hornidura proiektua, aldundiak sustaturikoa.**

**11.-E.46 "Berazubi mendebaldea" urbanizazio proiektuaren aldaketa.**

**12.- 28. Zenbakia duen faktura-zerrenda.**

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2006ko urriaren 30ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- Inmigrazioa.

Gai honi buruzko diktamena irakurri da.

<p><b>Lagun gabeko adin txikikoen zentroa</b></p> <p>Zentroa dagoen zonako bizilagunen ezadostasuna kontuan izanda, Jokin Bildarratzek proposatu du koordinazio-sistemaren bat sortzea zentroa dagoen zonako merkatarien eta bizilagunen artean, adin txikikoen beraien parte hartzea ere duela, ondorengo helburu honekin, besteak beste: gaiak zuzenean gehien eragiten dien bizilagunei informazioa ematea, bai egoeraz, bai adin txikiko hauekin egin diren jarduketetz.</p> <p>Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.</p>	<p><b>Centro de Acogida de menores no acompañados.</b></p> <p>El Sr. Alcalde, ante la disconformidad de vecinos y vecinas de la zona, da cuenta de su propuesta, para que se cree algún sistema de coordinación con los comerciantes y vecinos de la zona en que está ubicado actualmente el centro, e incluso con la participación de los propios menores, con el objetivo principal entre otros de mantener informada a la población más directamente afectada de la situación y actuaciones llevadas a cabo con este colectivo.</p> <p>La Junta de Gobierno queda enterada.</p>
--	--

### 3.- Udal Lankidetzak Diru laguntzak emateko oinarriak.

<p>Gizarte Zerbitzuetako departamentutik aurkeztu dira oinarri hauek: Tolosan Osasun eta Gizarte Zerbitzuen alorrean lan egiten duten talde edo entitateentzako diru laguntzak arautzeko oinarriak.</p>	<p>Por el departamento de Servicios Sociales se presenta la propuesta de bases que regularán la concesión de subvenciones a los grupos o entidades que trabajan en el área de Salud y Servicios Sociales de Tolosa.</p> <p>A la vista de ello, y de conformidad</p>
---	---

<p>Beraz, aipatutako kontuan izanik eta Osasun eta Gizarte Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorri, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;"><b>ERABAKI DU</b></p> <p>1- Aipatutako oinarriak onartzea.</p> <p>2- Eskakerak aurkezteko epea azaroaren 17an amaituko dela ezartzea.</p> <p>3- Iragarkia prentsara bidaltzea.</p>	<p>con el dictamen emitido por parte de la comisión informativa de Salud y Bienestar Social, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;"><b>ACUERDA</b></p> <p>1- Aprobar las bases referidas.</p> <p>2- Establecer que el plazo de finalización para la presentación de solicitudes será día 17 de noviembre.</p> <p>3- Enviar el oportuno anuncio a la prensa para su publicación.</p>
--	--

**4.- “Ibarratik Misio Taldea” Gobernu kanpoko erakundearen eskaera.**

<p>Garapen proiektu batzuk finantzatzeko baliabideak lortze aldera, <i>Ibarrako Misio Taldea</i> GKEk sei postal argitaratu ditu Gabonetarako. Proiektu horiek azpigaratutako herrialdeetan bizi diren ume eta emakumeen egoera hobetzera bideratuta daude.</p> <p>Tolosako Udalari eskatu diote gutunazalak eta postalak erosiz laguntzeko (euro batean daude). Gainera, gain kostu bat ordainduta, postalak pertsonalizatzeko aukera dago zoriontzeko testuekin.</p> <p>Hortaz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatura,</p>	<p>Al objeto de conseguir recursos para financiar diferentes proyectos de desarrollo, enfocados a mejorar la situación en la que viven niños y mujeres en países subdesarrollados, la ONG <i>Ibarratik Misio Taldea</i> ha editado seis postales de felicitación para las próximas Navidades.</p> <p>Solicitan la colaboración del Ayuntamiento de Tolosa con la compra de postales y sobres, al precio de 1€ la unidad. Además, también hay posibilidad de personalizar las postales con textos de felicitación, con un coste adicional.</p> <p>Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la</p>
--	--

<b>ERABAKI DU</b>	alcaldía, <b>ACUERDA</b>
1- Udalak, aurten, hauetako postal bat erabiltzea, Gabonetako zoriontzea egiteko.	1.- Que la felicitación municipal de este año se elabore con una de esta postales.
2.-Zoriontzeko testua personalizatzea.	2.- Que se personalice el texto de la felicitación.
3.- Akordioaren berri ematea <i>Ibarratik Misio Taldeari</i> , Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari Kontuhartzaitzari eta Kultura departamentuari.	3.- Que se comuniquen el acuerdo adoptado a: <i>Ibarratik Misio Taldea</i> , al departamento de Servicios Sociales a Intervención y Cultura.

#### **5.- Etxez etxeko laguntzak banatzeko araudi berriaren aplikazioa.**

Mahai gainean geratu da Idazkariak txostena egin arte.

#### **6.- Udate. Hiruhilabeteko txostena.**

Gobernu batzar hau, jakinaren gainean geratzen da, Udateren Koordinatzaileak Udate zerbitzuari buruz prestatutako txostenarekin. Beraz, txostenak honela dio:

“Urteko hirugarren hiruhilabeteko honetan, Udate zerbitzuak aurreko hiruhilabetekoaren bidea jarraitu du. Kontutan hartu behar da hiruhilabete honetan ez du komunikabideetan presentziarik izan; gogoratu aurreko hiruhilabetean egin genuela prentsa aurkezpena. Gainera, abuztuan nabarmen jaitsi da kexa kopurua, eta hilabete osoan 7 besterik ez dituzte aurkeztu. Hala ere, joan den trimestreko kopuru bertsua jaso du Udatek (55 aurrekoan, 48 orainoan).

#### **Espedienteen laburpena:**

Epealdian 48 espediente jaso da.

Nora zuzenduta:

DEPARTAMENTUA	URTARRILA-MARTXOA	APIRILA-EKAINA	UZTAILA-IRAILA
- Euskara eta Hezkuntza:	3	2	
- Departamentu guztiak	1		1
- Idazkaritza:	2	2	6
- Kirolak:	5	5	4

- Obra eta Zerbitzuak	10	26	23
- Udaltzaingoa	10	15	11
- Hirigintza	2		1
- Kultura eta Gazteria	1	6	8
- Festak	1	1	1
- Pertsonala		2	
- Gizarte Zerbitzuak		4	
- Etxebizitza		1	
- Iurreamendi		1	
- Berdintasuna		1	
- Turismoa		1	
- Kontuhartzaitza			1
<b>GUZTIRA</b>	<b>35</b>	<b>55 *</b>	<b>48*</b>

\* Zenbait espedientek departamentu bat baino gehiago ukitu du.

Nola heldu dira:

- Mostradorean:	06
- Telefonoz:	11
- e-postaz:	29
- besterik	2

### **Espedienteen egoera:**

Guztira 48 espediente jaso dira. (Ikusi I. eranskina)

48 espediente horietatik, 42 erantzunda daude. Erantzundako 42 espedienteetatik, 32tan epe barruan jaso dute erantzuna. (Ikusi II. eranskina). Beste 10, epez kanpo erantzun dira. (Ikusi III. eranskina).

Irekita 6 espediente daude; guztiak, noski, epez kanpo (Ikusi IV. eranskina)

Hilabetez-hilabete espediente kopuruaren taulan (V. eranskina) ikus daiteke zerbitzuaren bilakaera urtearen hasieratik. Bi mugarri nabarmen: ekainean jaso zuen Udatek kexa gehien, seguraski, prentsan zerbitzuaren berri eman berria zelako. Aldiz, abuztuan, behera egin du, opor garai bete-betea izateagatik.

### **BALORAZIOA:**

Berriz ere, erantzunei dagokienez adierazi behar da Udatek ez dituela emandako erantzunak kualitatiboki baloratzen; hori aurrerago egin beharreko zerbait izango da, baina oraingoz, Departamentu bakoitzak emandakoa bere horretan jaso du.

Jasotako iradokizun eta kexak, kasu guztietan, egun bateko epean egin dute jasotzetik dagokion departamenturako bidea, egun berean izan ez denean. Beraz, jasotzeko eta dagokion departamentura helarazteko prozesuak bete-betean funtzionatu du.

Erantzun epeari dagokionez, etengabeko hobekuntza nabari da epe barruan itxitako espedienteen portzentajeetan. Halaber, itxitako espediente guztiak kontutan hartuta,

erantzunen batezbesteko epea jaitsi egin da aurreko hiruhilabetekoekin alderatu, beheranzko joera mantenduz.

	URTARRILA-MARTXOA	APIRILA-EKAINA	UZTAILA-IRAILA
Itxitakoak epe barruan	35-14 (%40)	55-26 (%47)	48-32 (%66)
Itxitako espedienteen erantzun epea	16 egun natural	7,65 egun natural	6,14 egun natural

Aurreko hiruhilabetekoan ez bezala, lortzen ari gara zenbait Departamenturen erantzun epeak betetzea; eta Udalaren konpromisoa 5 egunetan erantzutea bada ere, bost lanegun bezala ulertu beharko litzateke; bestela, datorren urriaren 12ko zubiaren kasu, oso zaila izango baita urriaren 11n sartutako kexa bat, lau eguneko etenaldiaren ondoren, hilaren 16an (ondorengo lehen lan egunean) erantzutea. Beraz, 6,14 egun naturaleko indizea 5 laneguneko epearen barnean dagoela kontsidera daiteke. Gainera, pentsatzekoa da herritarrak erantzun bat jasotzen badu, arrazoizko epe batean, ez duela horrenbeste erreparatuko 5 eguneko epe hori zorrotz bete den ala ez.

Departamentutik departamentura desberdina izan da kexa eta iradokizunek izandako eragina. Hala, Hirigintza Obra eta Zerbitzuetan jaso dute espediente gehien; ondoren Udaltzaingoa legoke. Aurreko hiruhilabetearekin alderatuta, joera mantentzen da. Ondoren datoz Kultura, Idazkaritza eta Kirolak.

Datorren hiruhilabeterako erronka beharko luke, aurrekoaren dinamikarekin jarraitzea erantzunen aldetik; eta gainera, denbora luzez erantzun gabe geratzen diren espediente apur horiei jarraipen zorrotzagoa egitea Udatetik”.

#### **7.- Softec. Kontratuaren luzapena.**

Mahai gainean geratu da, Enplegu batzordeak informatu arte.

#### **8.- Minuta honorarios dirección obra Errota.**

Mahai gainean geratu da, Idazkariak informatu arte.

#### **9.-Amarotz auzoko sarbideak eta Iruña etorbideko urbanizazio proiektua, onarritza, idazteko lan proposamena.**

Hirigintza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorri, Gobernu batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, honako lan proposamena onartzen du:	A propuesta de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, aprueba la propuesta de trabajo presentada por los arquitectos D. Manuel
---	--

<p>Manu Arruabarrena et Santiago Peñalba arkitektoek, Amarotz auzoko sarbideetako eta Iruña Etorbideko urbanizazio obren oinarritzko urbanizazio proiektua egiteko aurkeztu duten lan proposamena, hain zuzen ere.</p> <p>Aurrekontua: 31.320,00 €koa da, BEZa barne.</p> <p>Bestalde, alderdiek, proiektuaren zioa zein den jakitea beharrezkoa dela jakinarazten du alkateak.</p>	<p>Arruabarrena y D. Santiago Peñalba para la redacción de un proyecto básico de urbanización de Iruña Etorbidea y los accesos al Barrio Amarotz de Tolosa.</p> <p>El presupuesto asciende a la cantidad de 31.320,00 € (IVA incluido).</p> <p>Por otra parte el Sr. Alcalde manifiesta la necesidad de que las partes conozcan cual es el objeto del proyecto.</p>
---	---

#### **10.- Tolosan Montezkueko ur-hornidura proiektua, aldundiak sustaturikoa.**

<p>Gobernu batzar honek, jakinaren gainean geratu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamentuko Foru Diputatuak, 2006ko urriaren 9an datarekin emandako Foru Aginduaren bitartez, Tolosako Montezkueko ur hornikuntza Proiektuari onarpen tekniko eta behin behineko ematea ebatzi zuen.</p> <p>Indarrean dagoen legeriaren arabera, obren herri erabilera eta lursailak eta ondasunak hartzeko beharra aitortzeko espedientearen lehen tramitetzat hartzen da aipatutako onarpena.</p> <p>Proiektuari buruz udal Ingeniariak idatzi duen txostenaren berri ere eman zaio batzordeari.</p>	<p>La Junta de Gobierno queda enterada de que el Diputado Foral del Departamento para el Desarrollo Sostenible de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa, por Orden Foral de 9 de octubre de 2006, ha resuelto aprobar técnica y provisionalmente el Proyecto de abastecimiento de Agua al Deposito de Montezkue.</p> <p>Dicha aprobación se realiza de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente como trámite de iniciación del expediente de declaración de utilidad pública de las obras y necesidad de ocupación de los terrenos y bienes afectados.</p> <p>Por otra parte tambien se da cuenta a la Junta de Gobierno del informe emitido al respecto por el Ingeniero municipal, quedando enterados del contenido del mismo.</p>
---	--

## 11.- E.46 “Berazubi mendebaldea” urbanizazio proiektuaren aldaketa.

<p>Gobernu batzarrak, 2006ko ekainaren 5ean egindako batzaraldian, hasierako onespena eman zion, zenbait baldintzarekin, Bista Alai, S.A. delakoak sustatzen duen, E.46 “Berazubi Mendebaldea” eremuko urbanizazio proiektuari.</p> <p>Espedientea jendaurrean egonda, eta ez da alegaziorik aurkeztu.</p> <p>Hasierako onespenean xedatutakoa betetzeko BISTA ALAI, S.A.k, irailaren 6an aldatutako proiektua aurkeztu zuen.</p> <p>Dokumentu horri buruz egindako txosten teknikoetan dokumentazio osagarria eskatu zen eta 2006ko urriaren 19an dokumentazio hori aurkeztu da udaletxean.</p> <p>Ikusirik dokumentazio honi buruz udal arkitektoak eta ingeniariak idatzi dituzten txostenak, eta Hirigintza batzordeak jaulikitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;"><b>ERABAKI DU</b></p> <p><b>LEHENA.</b>- Behin betiko onspena ematea R.46 “Berazubi Mendebaldea” eremuko urbanizazio proiektu aldatuari. Zehatzago esan da, honako dokumentuei:</p> <p>- 2006ko abuztuaren 17an bisatutako Urbanizazio Proiektu</p>	<p>La Junta de Gobierno Local, en reunión celebrada el día 5 de junio de 2006, aprobó inicialmente, con condiciones, el Proyecto de Urbanización del área R.46 “Berazubi Oeste” promovido por Bista Alai, S.A..</p> <p>Sometido el expediente a información pública no se presentó alegación alguna.</p> <p>El 6 de Septiembre, y en cumplimiento de lo establecido en el acuerdo de aprobación inicial, BISTA ALAI, S.A., ha presentado proyecto modificado.</p> <p>Mediante los informes técnicos correspondientes se solicitó información complementaria y con fecha 19 de octubre de 2006 se presenta ante el Ayuntamiento dicha información complementaria.</p> <p>A la vista de los informes emitidos al respecto por el arquitecto y el ingeniero municipales, y de conformidad con el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;"><b>ACUERDA</b></p> <p><b>PRIMERO.</b>- Aprobar definitivamente el Proyecto de Urbanización modificado del área R.46 “Berazubi Oeste”, aprobación que se refiere a la siguiente documentación:</p> <p>-Proyecto Modificado de Urbanización visado con fecha 17 de</p>
---	--

<p>Aldatua, 5, 7.1, 7.2, 8.3, 8.6 eta 8.7 planoak ezik, eta 2006ko urriaren 18an bisatutako dokumentazio osagarria.</p> <p><b><u>BIGARREN.</u></b>- Erabaki honen berri, Hirigintza departamentuari eta interesatuei jakinaraztea.</p>	<p>agosto de 2006, excepción hecha de los planos 5, 7.1, 7.2, 8.3, 8.6 y 8.7 y documentación complementaria visada con fecha 18 de octubre de 2006.</p> <p><b><u>BIGARREN.</u></b>- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención y a los interesados.</p>
--	---

## **12.- 28. Zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak 28. faktura-zerrenda 156.571,05 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Aipatutako 28. faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARREN.**- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

**Cafeteria Beotibar.**- A la vista del informe jurídico emitido en relación al pintado y raseado de la fachada del establecimiento Beotibar, sito en San Frantzisko 4 y dado que del estudio del mismo se deduce que el pintado y obras de la fachada deben correr a cuenta de los concesionarios, y que actualmente y por acuerdo de Comisión de Gobierno en sesión celebrada el 17 de mayo del año 1999 corresponde a Fronton Kafetegia S.L. y Maidonoa Jatetxea, S.L. respectivamente, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

### **ACUERDA**

**PRIMERO.**- Requerir a los servicios técnicos del Ayuntamiento que informen detalladamente sobre los trabajos de conservación necesarios a realizar en la edificación sita en el establecimiento Beotibar, en lo que afecta a la Cafetería y al Restaurante del Frontón.

**SEGUNDO.**- Emitido el citado informe, requerir a los titulares de las concesiones la realización de los trabajos que se propongan.

**TERCERO**.- Dar cuenta de este acuerdo a los servicios técnicos del Ayuntamiento, estableciendo el plazo de diez días para la emisión del informe, y a los concesionarios antes citados.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**